



## IKASTETXEETARAKO GABONETAKO KANPAINAREN PROPOSAMENA

### “ZURE EZAUGARRIAK, ERABAKIGARRIAK”

#### Sarrera

Bilboko Elizbarrutiko Caritasen “Zure ezaugarriak, erabakigarriak” izeneko kanpainaren bidez, kristau konpromisoaren esanahian sakondu nahi dugu, izateko eta munduan egoteko modua baita. Modu konprometituan bizitzea, ebanjelioaren arabera, Nazareteko Jesus erreferentetzat hartuta; hau da, bizitzaren erdigunean Jesus bere bizitza gurutzeraino ematera eraman zuen arrazoi berbera jartzea. Gizaki guztienganako eta planetarekiko maitasuna, beti eta leku guztietan. Konpromisoak errealitatea eraldatzera garamatza; eta, noski, errealitate hori gure bizitzetan sartu behar dugu, errealitateak mugitu behar gaitu. Beraz, ez da soilik kanpoan dagoen errealitatea eraldatzea, baizik eta errealitatea gudan sar dadin eta eraldatu gaitzan uztea. Horretarako, buru-bihotzak ireki behar ditugu, errealitateak busti eta hunkitu gaitzan; entzuten eta aztertzen ikasi behar dugu, gure jokabidea iraultzeko eraldaketa pertsonal eta soziala lortzeko.

Caritasen izenean, itxaropena izateko eskatu nahi dizuegu, eta argi izateko, aldaketa eta eraldaketarako aukera asko ditugula gure esku. Orokorrean, keinu xume eta gertuko bidez; eguneroko lanean elkarri laguntzeko, irribarre egiteko, ilusioz aurrera egiteko aukera ematen diguten ekintza txikiak. Maitasuna zabaltzera animatu nahi zaitugu; keinu txikiak adierazgarriak izan daitezke, Jesus haurraren ereduari jarraituz. Ekintza xumeenen bidez, gure bizitza eta historiaren norabidea aldatuko ditugu.

Bi bideo aurkeztu nahi dizkizuegu, kanpaina honetan lantzeko, eta keinu txiki baina adierazgarri bat ere proposatu nahi dizuegu. Postal batzuk dituzue opari, zuek nahi duzuen pertsonari edo familiari bidali eta Gabon zoriontsuak opatzeko.

#### BIGARREN HEZKUNTZA ETA BATXILERGORAKO BIDEOA

“¿Qué regalarías si fuera la última navidad?” (Zer oparituko zenuke azken Gabonak balira?) izeneko bideoa jarri. (5 minutu)

[https://www.youtube.com/watch?v=snUdDwJaY\\_c](https://www.youtube.com/watch?v=snUdDwJaY_c)

Gurasoekin ere landu daiteke.

Jarri baino lehen, ikasleei eskatu bideoan agertzen den pertsonetako bati erreparatzeko (erantzunetan giten dituen aldaketez ohartzeko).



Bideoaren ostean, solasaldia bideratuko dugu, honako galderen bidez:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Zerk eman dizue atentzioa?
- Zein aldaketa ikusi dituzue pertsonengan, galderak egiten joan ahala? Adierazpen, jarrera eta erantzunen aldaketak.
- Zer ondorio atera ditzakegu?

## LEHEN HEZKUNTZARAKO BIDEOA

Color Your World With Kindness <https://www.youtube.com/watch?v=rweIE8yyYOU>



Bideoaren ostean, solasaldia bideratuko dugu, honako galderen bidez:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Zerk eman dizue atentzia?
- Zein aldaketa ikusi dituzue pertsonengan? Adierazpen, jarrera eta erantzunen aldaketak.
- Zer ondorio atera ditzakegu?

## KEINUA

Keinu txiki adierazgarri bat. Gaur egun ez da postalik idazten. Gaur egun Facebook, Instagram, Twitter edo WhatsApp bidez zoriontzen dugu elkar. Mezu batean pentsatu, saretik hartu eta gure kontaktu guztiei bidaltzen diegu. Postal bat idazteak pertsona edo familia zehatz batentzako mezua pentsatzea eskatzen du; haiengan pentsatzea, benetan esan nahi dieguna.

Kanpainako txartelak banatu eta ikasleei eskatuko zaie ondo pentsatzeko nori idatziko dioten (gertuko edo urruneko senideren bat, lagunaren bat, ikaskideren bat...) Ondoren, postala idatzi eta opari moduan entregatzera animatuko ditugu; pertsona horrenganako maitasun edo laguntasun keinu moduan.